



# MEMORIA

## ***LEGORRETAKO ZINEMAREN BERRIKUNTZARAKO PARTE HARTZE PROZESUA***



*2.go SAIOA*

*Data: 2014ko maiatzak 15*

*Ordua: Arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara*

*Bideratzaileak: Jon, Eduardo, Eider eta Aloña*



## PARTE HARTZAILEAK

Legorretako herritarrak,

M<sup>a</sup> José Urretabizkaia, Arantxa Eskisabel, Carmen Méndez (Parrokiatik), Lurdes Gaztañaga, Karmele Gaztañaga, Iñigo Lasa (Udaletxea eta Aldapa haundi), Bakartxo Méndez (Udala), Jesus M<sup>a</sup> Arrizabalaga (Udal Kultur Arloko Langilea), Beñat Jauregi, Iker Zinkunegi (Dar-Dar Antzerki Produkzioak), Mirari Amundarain (Guraso Elkarte), Nekane Iturrioz, Asier Zinkunegi (Dar-Dar Antzerki Produkzioak), Mikel Felipe (Gaztetxea), Aitziber Bereziartua (Elekun Abesbatza, Irrintzi Alai Dantza Taldea), Nagore Sánchez, Zelai Amenabar (Irrintzi Alai Dantza Taldea)

## SARRERA ETA AURKEZPENA

Saioari hasiera emateko, zinearen sarreran biltzen gara denak eta borobilean jartzen gara. Lehenengo bakoitzak bere burua aurkezten du izena eta elkarteren batean datorren esaten duelarik..

Ondoren saioaren helburua aurkezten dugu: Lehengo osteguneko saioan behar batzuk detektatu ziren. Erabaki bat ere hartu zen: Malda kentzearena. Hau abiapuntutzat hartuta gaurko saioaren helburua eraikinaren erabilerak erabaki eta diseinuari buruzko irizpideak ezartzea da.

## LAN KOLEKTIBOAREN HASIERA. TAILERRAK

Parte hartzaileak 2 taldetan banatu dira. Aurreko astean detektatu ziren beharren zerrenda eta eraikinaren bi solairuen planoak banatzen ditugu eta hurrengo galdera planteatzen dugu:

Behin eraikina egokituta, lehen saioan jasotako zein erabilera jar litezke bertan?

Planoetan banaketa posible bat marraztu






## KONKLUSIOAK:

Plenarian, talde bakoitzak bere lanaren aurkezpena egiten du. Adostasunik lortzen ez denez, Itten-ek proposamen guztiak jasotzen ditu eta ideia guztiak uztartuz proposamen orokor bat prestatzen saiatzeko konpromisoa hartzen du. Lan hau egiten denean beste deialdi bat egingo da honen aurkezpena egiteko.





Legorreta





Legorreta



## BALORAZIOA

Amaitzeko, parte hartzaileei saioaren balorazioa egiteko eskatu zaie. Horretarako, paretan orri bat jarri dugu eta bertan balorazioa idatzi dute:

